

# Hitzatzea

## Kontrabandoz bestera behar du liburuak

PELLO ELZABURU

Pamiela etxekoa

*Has gaitezen Fernandoren egiak esanez: irakurleak berak erabakitzen du zein liburu erosi, zein lan irakurri. Balizko irakurleari produktua nola helarazi da kontua. Horrela da helduentzako liburuetan, baina ez haur eta gazteentzakoan.*



### Irakurlea, azken

Dendaria. Gurasoak. Irakasleak... Beraiek erosten dituzte haur eta gazteentzako literatura liburuak. Literaturzale direlako, irakasleek gomendatu dizkietelako, beren bekatuak zurrizteko... Irakurlea bera dugu azken mailan. Eta, zinez, merkataritza legeen ikuspegitik oso bitxia da fenomeno hori. Bezeroa, azken. Zera esan nahi dugu, saiakera lana erosten duena bera dela irakurlea; edo liburutegi espezializatua, edo unibertsitatea, edo opari liburu izan litekeela...

Haur eta gazte liburuaren kasuan, adin txikietan bereziki, hankaz goratuta dago ordena hori eta, ondorioz, beste arloetan baino gehiago zaindu behar dira bitartekariak: irakasleak, gurasoak, liburuazainak eta liburu dendariak.

### Liburu denda, aliatu

Gaztetxoan edo gurasoen irizpide eta nora eza zuzentzeko gaitasuna duen aldetik, liburu saltzailea ezinbesteko aliatu bat da guretzat. Hari dagokionez,



esku artean duen materiala, hala liburu nola autoreak, behar bezala ezagutzen dituen profesionalaz ari gara, klabea baita, gurekiko, haur eta gazte literaturaren zabalkunde egokiari gagozkiola. Izan ere, dendariak harreman zuzena du irakurlearekin, aholkulari paregabea izan liteke, eta duen ahalmen biderkatzailea medio, eragin handia izan lezake haur eta gazteei loturik bizi diren guraso eta irakasleengan.

Dendariaren jarduna gorabehera, liburu dendak badu ahozko komunikaziotik aparte dagoen bestelako biderik: erakusleihoa, liburuak sailkatzeko eta erakusteko manera, nobedadeen mahaia... Jakina dago gaur egungo liburu denda bateko erakusleihok denetariko produktuak erakusten dizkiguna: liburu argitara berriak, salduenak, CDak, DVDak... eta, onenean, baita haur eta gazte literaturako lanak ere. Esan bezala, 'onenean'. Dendariak erabakitzen du erakusleihoa eta, ezinbestean, aliatua bihurtu behar dugu saltzailea.

Dendariarekiko komunikazioa ez ezik, behar-beharrezkoa da katalogo espezializatuen laguntza, aldizkari berezituena, buletinena... Lagungarri izango zaizkigu guraso eta irakasleengana zentzuz iristeko asmotan.

Nirekiko, funtsezkoa da dendariaren lana. Funtsezkoa izanagatik, badut kezka, liburu dendari ofizioa galtzen ari da eta. Eta liburu lortzeko bideak ere ziztuan aldatzen. Datu objektiboak dira. Liburu denda txiki eta ertainak desagertzen ari dira. Testu-liburuaren lege berriak kalte handia

egin dio dendari txiki eta ertainei. Legea aldatzeak sare komertziala desagertzea ekarri du, neurri handi batean. Liburu denda txikiak eta ertainak, izan ere, testu-liburuaren komertzializazioa zuten iturri nagusietako bat. Urtean zehar, stock minimo bat bermatzen zien, eguneroko eskariari aurre egin ahal izateko lain ziren.

### Eskola, azken aukera

Ari garela, galdera bat bera dugu beti abiapuntu, ahaztu nahiko ez genukeena: alegia, nola iristen da liburu irakurle gaztearen eskuetara?

Sari askotan, eskolaren lana gutxiestera jotzen dugu. Literatura irakasgai bihurtzea literatura bera gorrotatzeko biderik eraginkorrena dela eta gisako perlak esan eta idatzi ere dira. Eztabaida ez da berria, baina errealitateak dio, baita estatistikek ere, neska-mutikoetan % 70ek eskola duela, oraindik, liburuarekin eta literaturarekin harremanetan jartzeko azken aukera. (Hori eskolaren alde, beraz). Esan nahi baita, gurasoak ez direla irakurtzeko zaleak, edo zale txikiak direla, ez dutela libururik etxean, beren kontsumo ohituretan ez dela azaltzen liburutegiak bisitatzea. Eskola, beraz. Gauzak horrela, hobe genuke arinkeria gutxi erabili eskolak duen egitekoari buruz.

### Liburutegia, itxaronaldia

Abiapuntu hartu dugun galderari tiraka ari garela, jo dezagun liburutegira, liburuzainen bila.

Liburuzain gazte asko ari dira lanean gure herrietako biblioteketan. Gazte, eta dinamikoak, haur eta gazte literatura bultzatu nahi dutenak era

batera edo bestera. Kasu honetan, haur eta gazte literaturako liburuak nola iristen diren liburutegietara aztertu beharko genuke. Hausnarketa tiki bat egin, besterik ez bada ere, eta, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak euskarazko liburuak diruz laguntzeko politika aztertu. (Beste batean jardungo dugu euskarazko liburuak laguntzeko bide horretaz. Subentzio huts? Erosketa merke huts?...). Esan dezagun Eusko Jaurlaritzak bere ardura diren liburutegiak hornitzeko programa dugula. Jakina izango denez, urtea joan eta urtea etorri, aurreko urteko euskarazko liburuak, produkzio osoa, erosten du Jaurlaritzak kolpetik: liburu bakoitzeko 250 ale, EAEko udal liburutegietan banatzeko. Programa ona izan liteke editoreentzat, hobetu beharrekoa, dudarik gabe, baina gaur-gaurkoz ezinbestekoa. Eta ezinbestekoa izanagatik ere, arazo da literatura berarentzat, bai eta literaturaren zabalkundearentzat ere. Alegia, halako urte bateko udaberrian ateratako liburuak ez da liburutegira urtebete igaro arte iritsiko. Horixe koxka eta problema. Landu beharreko auzia. Izan ere, liburutegi dinamiko batek momentuan behar ditu liburuak. Zehatz ditzagun bi puntu, liburuazainen faboretan: batetik, liburuazainak aurrekontu murrizta ohi du; bestetik, liburuak dohainik jasoko duela dakienez, noiz jasoko duen ez badaki ere, ez du erosiko. Ondorioz, irakurleak, liburutegira jotzen duen horrek, sei-zortzi hilabete egon beharko du zain, itxaronaldian, guztizko haurdunaldi bat esperoan, ponperia eta hots

handian iragarri duten nobedadea bibliotekara noiz helduko. Eta gerta liteke gosea pasatzea ere. Hausnarketa merezi duelakoan nago eta, jakina, liburuazainek zer dioten jakin nahiko nuke nik. (Hala ere, barrundatzen dudanez, liburuazain dinamikoak aurre hartuko dio irakurleari, eta delako liburu jakina erosi).

### Internetez, kontrabandoz

Ez da asko «Liburu bat egiten» izeneko erakusketa paratu genuela Iruñean. Bisita gidatuak antolatu ere egin genituen, ikastetxei eskainirik. Eta heldu dira Baztandik. Neska-mutil koadrila, irakaslearekin batera. Erakusketak liburuaren prozesu osoa du erakusgai: testua idazlearen eskutik irten eta irakurlearen eskutara iritsi bitarteko urrats guztiak. Eranskin bat ere badu erakusketak, liburu elektronikoari dagokiona, egile eskubiderik ez duten liburuak eta bestelako batzuk ere Interneten bidez nola jaitz daitezkeen erakusten duena. Hortaz, amaieran, ikasleak ordenagailuaren pantaila aurrean jarrita zeudela, gidariaren hitzak: «... eta prozesu honen ondoren, liburuak zuen eskutara iritsiko da. Eskolara helduko da. Edo dendara. Edo liburutegira. Inork badaki beste modurik liburuak eskuratzeko?». Eta ikasleetako baten erantzuna: «Kontrabandoz!». Baztandarra izan! Esan beharrik ez: hark sobra zuen ordenagailua.

Eskola, liburu denda, liburutegia, ordenagailua... ez ditzagun sobra izan.

